

**EUSKARAZKO TESTUGINTZA  
JURIDIKO-ADMINISTRATIBORAKO OSAGAIAK:  
BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEN  
ZIRKULARRAK (1917-1920)**

AURKIBIDEA: 1. Sarrera: euskara eta Administrazioa XX. mende hasieran. 2. Giro politikoa: Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (1917-1920). 3. Aldundien zirkularrak: itzultzaileak. 4. Aldundien zirkularrak: testuen ezaugarriak. 5. Labur-zurrean. 6. Eranskina: Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien euskarazko zirkularren adibide bat

**1. Sarrera: euskara eta Administrazioa XX. mende hasieran**

Euskararen historia eta bilakaeran, mendez mende, nabarmena izan da testu juridiko-administratiboaren gabezia. Gizartean bertan euskarak izan duen zeregina bera ez da, horratio, aldekoena halako zereginetan harro eta eguneroko ibiltzeko.

Topikoa da eta ukaezina ere, Euskal Herriko foru lurraldeetan jardunez gero, agerian dugun errealitatea. Izan ere, horietariko batean ere ez zen gauzatu euskararen erabilera juridiko-administratibo osoa. *Osoa* esan behar da, kasuan kasuko eta aldian aldiko testuak nonahi ditugulako eskura.

Kasurik onenean ere, euskararen erabilerak ahozko mailan izan du oihartzun nabarmena eta ez, ordea, idatzizkoan. Halaxe azaldu beharko genuke, oro har, euskararen egoera zuzenbide munduan eta foru lurraldeen historia ikuspegitik. Historiak, nolanahi ere, ikuspuntu franko ditu bere baitan eta aurreko zehaztapen hori zalantzapean jartzera garamatza. Zalantzazkoak ditugu, duda izpirik gabe, aurreko hauek euskal gizartean nagusi zen euskararen elebakartasunarekin ezkon-tzen baititugu. Ahozkoak, behinik behin, euskararenak ziren gizarte maila beheheretan eta horren lekukotza betea foru tes-tuek edo eskribau-agiriek ematen digute. Hartara esan dezake-gu ahozko mailan bederen, bazela eta badela horrelako erre-gistro edo maila juridikoa euskararentzat. *Alkar poderosoak, bide zorrak* eta abar luze batek bide horretatik eraman gintza-kete.

Bestalde, idatzizko gorabeheretan murgildu ahala, gero eta testu zabalagoak ari dira agertzen. Jakina, ez dira *lehen* maila-ko testuak, ezpada *bigarren mailakoak*, eta horien zeregina, argi dago, herri xeheari beste testu nagusien mezua helaraztea zen.

Horra hor, besteak beste, gure gaurko gintzan aurkitu eta plazaratu beharrekoak, tradizioari egotzi diogun urritasun hori nonbait eta nolabait ere, gaingitu nahian.

Gaingitu eta goititu, horra hor gakoa: fase berri hori asetzeroa etorri dira Frantziar Iraultzaren euskal testuak. Bertan nabar-mentzen da, argi eta zoli, lehen orduko iraultzaileek ideia be-riak herriaren hizkuntza bidez barreiatzeko zuten gogo bizia. Liberalismoa izan zen testu horien ardatz nagusia. Hain zuzen ere, euskal foruak hil zituen ideologia lehena izan zen bere mezua euskaraz aineratzen.

XIX. mendeko osin eta zuloetan sartuz gero, argi-ilun fran-koren iturria izan dezakegu euskararen baitan. Euskal Herriko Iparraldea bazter utzirik, Hegoaldeko lurraldeetan gertatu zen,

foruen galera bitartean (1839-1876), euskararen erabilera juridiko-administratiborik zabalena. Bizkaiko Batzar Nagusien euskal testu ezagunek ekarri zuten euskararen izatea parlamentuko ekintzetan. Bizkaiko Batzar Nagusien erregelamenduan zein bertako praktikan, euskara bazen gauza gorabehera juridiko-administratiboen eramaile izateko. Horren ildoan, ez ahaztu, komunikaziorako jorana, haietan eztabaidatzen zena bizkaitar guztiengana igorri nahia.

Historiaren kronologiak garamatza, aurrekoaren ostean, Eusko Jaurlaritzaren jarduerara (1936-1937). Horra hor, Euskal Herrian lehendabizikoz horrelako *estatu* egitura eta ondorenez ere, euskararen erabilera jakina, euskara bera izen zedin bote-re gune horren espresamolde berebizikoa. Emaizta ere edonork ezagun eta aipatua da: *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*.

Gerraren zantzuak Euskal Herrian itzali bezain laster, bertan behera desagertu ziren euskararenak, salbuespenak salbuespen. Konstituzio berriaren garaiak ekarri du, beste behin ere, euskararen estatus berezia, hizkuntza ofizialkide gisa. Hortik ere, ondorio zuzenekoa, euskararen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren testugintzan.

Esan gabe doa aipatutakoetan itzulpena izan dela erdaratik euskarara zubi-lana egiteko tresna; erdaraz pentsatua zena, euskaraz emateko lanabesa.

Baziren bestelakoak ere Euskal Herrian: agintari zibil eta militarren bandoak, nekazari munduko paperak, hitzaldi politikoak, propagandakoak, bertsoak eta abarrekoak, egunerokoak gabe, ugari izan ziren euskaraz eta Euskal Herrian.

Langintza honetan bazen halako hari gidatzailea, euskara bera zenbait zeregin juridiko-administratibotan erabiltzeko. Eta haria hor da, ezezaguna eta orain berreskuratu nahi duguna.

Ari gara, ari ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek egin zuten lanaz, batez ere, 1917-1920 urte bitartean. Aldi horretan Aldundietatik atera ziren zirkularrak æudaletara bidalikoakæ erdaraz eta euskaraz idatzi baitziren.

Lekukotza jatorra, beraz, testu hauek ematen digutena. Lekukotza aberatsa, gainera, testu horiek, salbuespenak salbuespen, begi-bistan jartzen dizkigutelako mende honen hasieran bizkaierak eta gipuzkerak izan zuten erabilera juridikoa, literaturatik aldendua gaiari dagokionez; alta, aldi berean, hizkuntzaren beraren gorabeherak egoki eta aise islatzen dira. Kontuak kontu, itzulpena bitartean, euskara aurrekontuetan, abeltzaintzan, errepide arauetan, irakaskuntzan, herri zorrean eta abarretan ikusten dugu protagonista.

## **2. Giro politikoa: Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (1917-1920)**

Esana dugu, lehen ere. Esan behar dugu, beste behin ere, aurreko hori ez zela izan ezerezaren ondorioa. Ekintza politiko baten fruitua dugu hori eta horrela ulertu behar da testugintza hori, alegia, esku zehatz batetik etorri zen testu euskaradun bakarra, hogeigarren mendeko gudu zibileko Eusko Jaurlaritzaren ekimena baino lehenagokoa.

1917. urtea da, Sabino Aranaren jarraitzaileak Bizkaiko Aldundian nagusi direnean. Bazen, orduko, zabaldua eta hasia euskal gizartean giro euskaltzale nahikoa. Bide beretik etorri ziren Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresua (Oñati, 1918) edota Euskaltzaindiaren sorrera (1919).

Giro horren zordun da Ramón de la Sota abertzalearen ekimena. Bizkaiko Aldundiaren buruzagitza eskuratutakoan, Ramón de la Sotak iragarri zituen geroko batean errealitate sendoak izango ziratekeenak. Hortaz, irakaskuntza izan zen gai nagusia, eta auzo eskolak, horien eginbehar printzipaleak. Bizkaitarren zerbitzuko sortu eta jarriko dituzte abertzale-

ek hainbat erakunde, besteak beste, *Junta de Instrucción Pública*, *Junta de Cultura Popular* eta abar. Horietara bildu ziren euskaltzale askoren lana eta gogoia: Belaustegigoitia, Eguskitza... besteak beste.

Ramón de la Sotaren hitzak esanguratsuak suertatzen dira prozesu hasiera honetan (1917ko maiatzaren lauan, karguaz jabetu zenean):

*«Dividiremos por eso nuestra actuación futura en tres grandes grupos: obras puramente educativas; obras que tienden al acrecentamiento de la riqueza, y obras económicas.*

*Entre las primeras, las educativas, hay ancho campo para nuestras iniciativas. Hay en el País vasco un movimiento que cuenta con las simpatías de todos los vascos. Me refiero a la labor que ciertos eruditos realizan para conservar y propagar el euskera. Nosotros, desde esta Corporación, debemos ayudar y ayudaremos dicho movimiento con todos los medios morales y materiales que estén a nuestro alcance.»*

Irakaskuntzaren premiak, alabaina, ez ziren euskararen inguruan gauzatu beharreko bakarrak. Bestelakoak ere baziren eta horien artean, nagusi-nagusi, euskara hizkuntz nazional bihurtzea. Bihurketa horretan euskararen zeregina, batez ere, Herri Administrazioan, beharrena ikusten zen abertzale horien ikuspegitik. Herria zen helburu, eta Aldundiaren xedapenak ahalik eta modurik euskaldunenean igortzea horren ondorio.

Bizkaiko Aldundiak arin jokatu zuen erabakiak hartzeko tenean. Izan ere, 1917. urteko maiatzaren lauan osotu eta hil bereko 13an eragingarri gertatu zen itzultzailea izendatzea. Eskubide errealean Bulego laguntzailea zen ordu hartan Luis Biziola jauna. Berori izendatu zuten itzultzaile, Bizkaiko Aldundiaren zirkularrak euskaratzeko eta, beharrezkoa izanez gero, zuzentzeko ere.

Ekimenak beste batzuen gogoia ere harrotu zuen, nonbait. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1917. urteko abenduaren 17an hartu zuen diputatu batzuen proposamena. Honetara zioen:

*«Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa.=Excmo. Sr.:—Los Diputados que suscriben tienen el honor de someter a la deliberación y resolución de V. E. La siguiente proposición:*

*Siempre que la Diputación estimó que un documento cualquiera que ella dictaba o acogía bajo su patrocinio, debía llegar a conocimiento de todos los moradores del País, dispuso que no solo se publicara en castellano, sino que también en vascuence. No se detienen los suscribientes a relatar los casos en que se ha seguido este procedimiento, porque su enumeración resultaría prolija. Lo único que entienden, y solicitan de V. E., es que se generalice esta línea de conducta, y se aplique en lo sucesivo a todas las circulares que expidan, así la Diputación como la Comisión provincial. Para la versión al vascuence de esos documentos, V. E. podría utilizar los servicios del Sr. D. Gregorio de Mugica, que antes de ahora, en traducciones que le encomendó V. E., ha dado muestras salientes de las nada comunes y excelentes aptitudes que reúne para esa labor; que habría de salir de sus manos con toda la perfección relativa a que es lícito aspirar en estas cosas.*

*Palacio de la Provincia, 14 de Diciembre de 1917.=Ricardo Rezola.=Miguel de Urreta.=Gerardo César Balmaseda.=Ignacio Pérez Arregui.=Ricardo de Urgoiti.=El Marqués de Valde-Espina»*

Proposamena Sustapen-batzordera pasatu zen. Batzorde horrek txosten bat idatzi eta Aldundiaren osoko bilerara bidali zuen, 1918. urteko urtarrilaren 16an, onartua izateko. Hona hemen Aldundiak onartutako txostenaren hitzak:



*«Excm. Diputación provincial de Guipúzcoa.=Excmo. Sr.: =Varios señores Diputados han presentado a V. E. una proposición en el sentido de que se acuerde la publicación de todas las circulares que dirija la Excm. Diputación y la Comisión provincial en castellano y en vascuence.*

*Entra en el espíritu de la proposición, por lo tanto, un doble propósito: la divulgación de las reglas que dicta esta Corporación, únicamente posible mediante la consignación en el vascuence usual en los pueblos de esta Provincia mediante redacciones sencillas que las pongan al alcance de todos, y obtener, al mismo tiempo, el que vulgarmente también se convierta o se extienda más el uso del vascuence como lengua escrita. Ambas tendencias son igualmente plausibles, como se complace en reconocerlo esta Comisión, que sin embargo, ha de hacer hincapié en la necesidad de que se empleen las palabras y giros más usados en las diversas comarcas de esta Provincia, al proponer a V. E. adopte por acuerdo la proposición a que se contrae este informe. V. E., sin embargo, acordará, como siempre, lo que estime más acertado.*

*Palacio de la Diputación, 16 de Enero de 1918.=Ladislao de Zavala.=José Joaquín Aztiria.=Emilio Santos.»*

Aldundiaren pentsaera, gaurtik ikusita ere, modernotasun zantzuak erakusten ditu. Labur esanda, bi lerro nagusitan zehatz daiteke erabaki horren mamia:

1. Itzulpengaiak Aldundiaren eta Probintzi Batzordearen zirkularrak dira.

2. Proposamena bikoitza da:

2.1. Aldundiaren arau zabalkundea egingarri izango da, eta eragingarri oso, gainera, baldin eta eguneroko euskaraz egiten bada. Azpimarratzekoa da kezka hori, hots, euskara artifizialaren gainetik, euskara jatorraren arrangura.

2.2. Euskara bera hartuko da aintzat hizkuntza idatziaren ikusmiratik. Eskakizun modernoa da, eta, zeresanik ez, lehenengo Eusko Jaurlaritzari hogeitau urteko aurrea hartzen diona.

Erabaki horiek hartu ziren; edozelan ere, arauak arau, sarri askotan gertatu dira hutsak, batik bat, euskararen aldekoetan.

Galdera, hortaz, hauxe izan daiteke: bete al ziren arauok? Bai. *Euskal Eснаlea* aldizkariak itzulpengintza honen inguruan honela dio 1918. urtean, "El Euskera en las Diputaciones" izeneko artikulutxoan:

*«La Excma. Diputación de Vizcaya acordó el año pasado que todas las circulares que salieran de su seno, en lugar de ir redactadas como hasta entonces solo en castellano, se enviaran a sus destinos escritas en castellano y euskera.*

*El acuerdo se cumple. Don Luis de Biziola es quien hace las versiones euskéricas, y ya no sale de las oficinas de la Diputación vizcaína una circular que, a la vez que en castellano, no esté redactada en nuestro idioma.*

*La Diputación de Guipúzcoa tomó el mismo acuerdo que la de Vizcaya, en sesión de Enero último, y también cumple escrupulosamente su decisión. Las versiones en Guipúzcoa las hace el Director de la Revista EUSKAL ESNALEA don Gregorio de Mugica.»*

### 3. Zirkularren itzultzaileak: Biziola eta Mugica

#### 3.1. Luis Biziola (1884-1937)

Luis de Biziola dela eta, euskal letretan aditu den norbaiti galdetuko bagenio, lepoa jasotzea izango litzateke, kasurik sarrienean horren erantzuna. Izan ere, ez dugu gerra aurreko euskal itzultzaileen artean jarrita; bestalde, eremu horretan dihardutenentzat ere ezezagun dira haren nortasuna eta lana.

Nonahitik begira dakiola ere, Biziola dugu, Bizkaian bederen, euskal itzulpengintza juridikoaren protagonista nagusia.



Bera da testu askoren itzultzailea eta bera dugu, era berean ere, hainbat lege-testuren euskaratzaile jakintsua. Horrela, zirkularrak ez ezik, beste testu asko ere itzuli zituen euskarara.

Jaiotzez Otxandiokoa zena 1884. urtean hantxe jaioa 1937an hilgo zen, egoera eta inguruabar tragikoetan. Biografia abertzale erabatekoen duen honek bere lanik agerikoenak Jon Bilbaoren Eusko Bibliografian daude bilduta. Ez, ordea, osorik, bertan ez baitago itzulpen lana. Bizkaiko Foru Aldundian eskubide errealean Bulegoan laguntzailea zena, bizitzaren arioz, lehenengo Eusko Jaurlaritzaren mandatari izatera iritsi zen gerra garaian, guda aurreko urteetan ondu zuen sindikatu lana ere (ELA-STV) ahaztu gabe.

Horren egitekoen lehenengo arrastoak gerra aurreko *Juventud Vasca* delakoan ditugu. 1910. urtean, elkarte horren zuzendaritza batzordearen kide hautatu zuten. Euskaltzaletasunak eraginda, Kirikiñorekin batera, elkarte horren euskal lehia-ketetan epaimahaikide izango dugu maiz.

Gerora ere, Biziola dugu 1923. urteko Bazko igandean egin zen bilera abertzalearen partaide. Egun hori izan zen gaur egungo Aberri Egunaren aurrekoa. Hortxe dugu Luis Biziola propagandista, eta ideia berberean iraun zuen Bigarren Errepublikaren sasoian, ELA-STVko kide modura Durangon eman zuen hitzaldian.

Biziola, edonola ere, igaroa zen orduko Eusko Ikaskuntzaren idazkaritzatik, Hizkuntza eta Kultura Sailean. Hartara, gertu-gertutik bizi zuen Eusko Ikaskuntzak Oñatin eratu zuen lehen kongresua (Gregorio Mugica ere kongresu horretan protagonista izan zen). Ez ahaztu, bide beretik ere, kongresu horren ondorio nagusiak, bete-betean lotzen baitira halakoak, itzulpengintzak moldatu beharko zukeen euskalgintzarekin. Honela zioen kongresu horren ondorio batek: *«El Congreso verá con satisfacción que las circulares y demás documentos que las Diputaciones envíen a Corporaciones y particulares en lengua vasca, lleven la unidad léxica posible.»*

### 3.2. Gregorio Mugica (1882-1931)

Aurrekoan ez bezalaxe, Gregorio Mugicaz hitz egitea mende honetako euskal letren lehendabiziko hogeita hamar urteez aritzea da. Euskaraz zein erdaraz idazle aparta eta trebea, euskalgintzaren arima izan genuen Gregorio Mugica urte luzeetan. Euskal kulturaren barruan, seinalatua izan zuen aita (Serapio Mugica). Bera ere, euskara non eta bera han. Eusko Ikaskuntzaren sortzaile eta bultzatzaile, kazetari, idazle, *Euskal Esnalea* eta *Euskalerriaren Alde* aldizkarien arduraduna... hainbat eta hainbat kontutan ibili zitzaigun akuilari Gregorio Mugica. Horren eskutik etorri zen euskal baratzera *Pernando Amezketarra* ezagun eta herrikoia. Egun ere, horixe dugu, beste askoren aurretik euskal herri literaturaren aitzindari eta bide-irekitzailea.

Mugica, haatik, hori guztiori izanik ere, hori baino gehiago ere bazen. Hizlari, ume sorospiderako erakundeen asmatzaile, euskara suspertzaile... Mugicak aspaldiko eskarmentua zuen, Gipuzkoako Aldundiak 1918. urtean zirkularrak euskaratzeko mandatua eman zionean.

Lan hori ez da ageriko Gregorio Mugicaren biografietan. 1931. urtean zendu zen gure pertsonaia. *Euskalerriaren alde* aldizkariak *alma mater* zuen Mugica eta, beraren heriotzaren ostean, zenbaki berezia opa zion hilberriari. Adiskide mandoa jarri zen idazle Mugicaren oroigarrian, eta Fausto Arozenak zerrendatu zuen, txukun eta zoli, Mugicaren hil arteko lanak. Lan horretan ez dugu Mugicaren itzulpen juridiko-administratiboaren lekukotzarik. Bil diezaiogun, beraz, haren hurrenkerari, laster batean argitaratuko dugun testugintza. Honen aurrerabide dugu hemen, esanaren adierazle.

### 4. Aldundien zirkularrak: testuen ezaugarriak

Itzulpengintzaren ezaugarriak aintzat hartuta, berehalakoan sumatzen ditugu desberdintasunak Bizkaiko eta Gipuzkoako

Aldundien ekimenen artean. Erritmoa eta egutegia, eta kronologia ere bestelakoak dira batean eta bestean.

Esan legez, Bizkaiko Aldundiak erabakia onetsi zuen 1918. urteko maiatzaren 13an eta 16an bertan Biziola lanean ari zen; Gipuzkoakoan, berriz, erabakia 1918. urteko urtarrilaren hiruan gauzatu zen.

Itzulpengai diren zirkularren autuak anitzak dira, mota desberdinetakoak. Batetik besterakoak ditugu Aldundien eskumenei dagozkienez. Badira batzuk zerga ingurukoak direnak, beste batzuek, aldiz, aurrekontuak eta abeltzaintza dituzte hizpide, basoak eta abar ere alboratu gabe.

Gehienetan izango dira testu laburrak, orrialde bateko zein biko luzeradunak. Bertara batzen dira Aldundiaren ebazpenak gerokoan; izenak berak dioenez æzirkularrakæ, horiek udaltara igortzeko asmotan egiten dira, udalok erabakien berri izan dezaten.

Biziolak testuak euskaratzen eta egokitzen ditu. Horretarako jokamolde bikoitza darabil. Alde batetik, Aranek markaturiko lorratzetik joan eta haren lexiko eta grafia ditu tresna nagusi. Zernahi gisaz, estutxo deritzo sarritan eta sinonimiaren erabilpena ugaritxoa da testugintzan. Zirkularren hartzaileak ditu go-goan Biziolak, eta hortik dator, etorri ere, Biziolaren taxua, zirkular batzuetan oin-oharretan argitzen dituenean testuan bertan erabilitako hizperriak. Sasoian sasoiko, Euskaltzaindiak ere jokabide berberari eutsiko dio sorreran *Euskera* aldizkarian ikusten denez.

Biziolaren ekarria da, eta horren meritu handia ere, lehenda-bizi eta modu sistematikoan aniztasun ideologia linguistikotik abiatu eta testu juridiko-administratiboei ekitea. Ezagun da haien zailtasuna. Lexiko, terminologia, tankera, mezua... jokoan dira horrelakoetan. Biziolak, edonola ere, badaki haiei irtenbidea ematen eta, zilegi balekigu esaten, irtenbide duina ematen.

Honen argigarri izan daitezke jarraian alderatuko ditugun testuak. Bertan dira orain arte esandakoaren islak eta ezaugarri irtenenak. Biziolak hautsi egiten du Uriartek ondu zuen tradizioa. Bizkaiko Batzar Nagusietako itzultzaile izan zen Uriarte. Haustura horrek, bistan da, baieztatzen du aspalditik esana duguna, alegia, euskal literaturaren baitan badagoela parekotasuna euskarak berak egiten duen aurrerakadaren eta zeregin juridiko-administratiboetan erabili behararren artean. Testu horiek urteetan baztertu izanik ez digu beren eragina kentzen.

Gregorio Mugicaren ekina, Gipuzkoako Aldundiari dagokionez, edu bestelakoa da. Mugicak aukeran ditu euskararen eredu batzuk, eta ildorik herrikoienarena hautatzen du. Ez doa aranatarren eskutik, ez ortografia, ezta lexikoan ere. Kaleko eta eguneroko euskara du gogoko, eta horri ekiten dio. Hala ere, lantzean behin, kontzeptu aldrebestu horietakoak ere azaltzen zaizkio bere langintzan. Konponketa zailekoak izanda ere, erdarari egiteko makurra erakusten du, hizperriaren ordezt. Hartara, gordin-gordinik jasotzen du euskarazko testuan erdaratik etorri zaion *Hacienda Municipal*. Modu berean ere, *Ayuntamiento* darabil, *Uri-Batzarre* noizean behingoz tartekatzen. Nahasian ditu, artean ere, Larramendiren zantzuok (*goar-pelaria*, *secretario* adierazteko) eta Lore Jokoen aztarnak.

Biziola eta Mugica, Mugica eta Biziola. Horra hor bikote baten lan aitzindaria eta, orain arte, ezagutu gabea. Ezaugarri bestelakoak, ideia berbera. Irakur bedi, zuzeneko adibide gisa, erdarazko testu berberari Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundietako itzultzaileek eman zioten tratamendu desberdina. Inongo eta inoren hitzak baino askoz argigarriagoak dira eranskinean datozen testuak.

## 5. Labur-zurrean

Euskal testu juridiko-administratibo ezezagunen ongitze lan honetan, gure ikerketen berri eman nahi izan dugu, beste

behin ere, ageri-agerian uzteko Euskal Herrian suertatu diren hizkuntza eta zuzenbidearen arteko harremanak.

Hogeita batgarren mendearen hasieran, jakin badakigu, mende honen lehen ahalegin sistematikoa euskara hizkera juridiko-administratibo moduan erabiltzeko, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek ondu zutelako 1917-1920 urte bitartean (hurrengo urteetan erdara nagusituko zen berriro). Egin-eginean ere, bolada honetan bi Aldundi horietatik atera ziren zirkular guztiak elebidunak izan ziren. Elebitasun juridiko-administratibo horren oinarriak garai horretako ekimen euskaltzaleak bultzatu zituen, batez ere, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Kongresuaren bitartez.

Itzultzaileak ezaugarri desberdinetakoak ziren. Biziola, arana-alea eta bizkaieraduna, hizperri eta ortografia berriaren bidea hartu zuena. Mugicak, oster, herriko euskara eta betiko ortografia, lexikogintza ere aspaldiko tradizioari eutsita.

Berba baten esateko, euskalgintzaren lerro nagusiak gorpuztu ziren euskara juridiko-administratiboaren alorrean, itzulpen-gintza zela medio, orduko eta gaurko ere, hainbat kontzeptu euskara eman nahian. Euskara egokitze ahaleginetan, beraz, aurrekari ohargarri eta aorain arte ezezagunak.

## **6. Eranskina: Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien euskarazko zirkularren adibide bat**

Artikuluari adierazitakoaren adibide gisa, jarraian zirkular bat jarriko dugu. Aukeratutako zirkularren gaia hau da: Eusko Ikaskuntza sortu eta gero, Aldundi biek zirkular bana bidali zuten udaletara, diru-laguntzak ematera gonbidatuz. Zirkularrarekin batera beste testu elebidun bi ere bidali ziren: Eusko Ikaskuntzaren aurkezpen-idazki bat eta elkartearen estatutuak. Zirkularraren gaztelaniazko testua berdina da bi kasuetan, baina Aldundi bakoitzetik irtendako itzulpena ez.

COMISIÓN PROVINCIAL  
DE BIZKAYA  
Circular

Constituída la **Sociedad de Estudios Vascos**, como resultado del trascendental Congreso de Oñate celebrado el año último, dicha Sociedad á la que prestan ya su apoyo moral y material las Diputaciones vascas y algunos de los principales Ayuntamientos del país, desea contar también con el que, cada una en medida de sus fuerzas, puedan prestarle aún las más apartadas y reducidas Corporaciones municipales del Pueblo Vasco, á todo el cual intenta dicha Sociedad llevar su obra de cultura, para la que considera la cooperación de esas entidades, medio necesario y aliento tan vigoroso como nacido de lo más hondo de ese pueblo á quien su labor se destina.

Haciéndose cargo de tan plausibles deseos, la Comisión provincial ha acordado dirigirse á V. como Presidente de ese Ayuntamiento, recomendándole con vivo interés acoja el llamamiento, que la **Sociedad de Estudios Vascos** le dirige, inscribiendo á

BIZKAI'KO  
LATERKI-BATZORDIA  
**Idazkorokorra**

EUZKO-IKASKUNTZA

Igazko urtian Oñati'n egindako astebeteko Batzaldi gomutagarrietan, an baturiko notin bikain gustijen gurari bixi-sutsuben gogo ta asmoz, geure Euzko Erri maite oni dagokijozan ikaskintza gustijak adiraltzeko, Bazkun egoki bat sortu ta irastia erabagizan. Amen dozube Bazkun ori.

**Euzko-Ikaskuntza** deritxo.

Euzkadi'ko Aldundijak ta Udalik nausijenak Bazkun oni urgazpena emon dautse, baña beste Udalik askok, orraitio, eztautse ondiño laguntasunik erakutsi. Oroen laguntasuna, baña, biarriarra dau. Gustijai, ba, txiki ta andi, landerr ta aberatz, oroi, diñogu, lagun eske ots eta dei egiten yake.

**Euzko-Ikaskuntza** onuragin onen sala ta zeregiña, Euzko Erri gustijan jakintasuna zabaldu ta ereitia da, baña orretarako zezgaz egin euki biarr da. Beraz, Bazkun onen egikixunetatik geure erri maite onen errai ta zastrayetara, indarttu ta sendotu dagijazantzat, barrenduko dan eznia, gustizko onuragiña ixan



dicha Corporación como Socio Protector, mediante la consignación de una cuota fija anual.

En la seguridad de que las iniciativas de la **Sociedad de Estudios Vascos** en beneficio de la vida local, las cuales tratan actualmente de concretarse mediante una Asamblea municipal que se ha de celebrar este mismo año y en la que ya á los representantes de los Municipios inscritos se concederán especiales derechos, compensarán con creces á ese Ayuntamiento del exiguo sacrificio, que en cuanto alcance su posibilidad, se requiere ahora de él para el cumplimiento de fines tan elevados.

Dios guarde á V. muchos años.

Bilbao 1.º de Mayo de 1919.

El Vicepresidente, Mariano de la Torre

El Secretario, José M<sup>a</sup> Estecha

dadintz, gustijen laguntasuna biarr dau. Beraz, ba, Udalen ur-gazpena egoki datorrke.

Azaldutako asmo ta gurari txalogarrijok aintzat artuki, Batzorde onek Udal gustijei ots egitia erabagi dau. Amen ba, Batzorde onen deya, ta zeuk Lendakari orrek, Udalburu zaran ezkerro, erantzun bijotzez ta maitekiro ots aberrkoi oni, **Euzko-Ikaskuntza** aunentzat urte-sarija ixentaurik.

**Ikaskuntza-Bazkun** onek uri ta errijen aldezko asmo onurakorrak daukaz, udaldarr ixakerea ta bixikerea aztertu ta zuzendu gura dauz, ta gusti orren adiralguntzea gertuteko, aurtan bertan Udaldarr-Batzaldi bat egiteko gogua dauka. Batzaldira erduko diran Udalen ordezkari ta aldunai, iñungo erraztasunak eta eskubidiak emongo yakez, euren Udalak **Euzko-Ikaskuntza**n arpidedun baldin ba-dira.

Ez gelditu ba, azkenen Bizkaiko Udalok.

Jauna zeugaz.

Bilbao 1919'gko. Orrila-l'gn.

Torre tarr Maren.

Lendakari-Orkea,

Estetxa tarr Joseba Mirena.

Idazkarija.

COMISIÓN PROVINCIAL  
DE GUIPÚZCOA  
Circular núm. 18.

Constituída la **Sociedad de Estudios Vascos**, como resultado del trascendental Congreso de Oñate celebrado el año último, dicha Sociedad a la que prestan ya su apoyo moral y material las Diputaciones vascas y algunos de los principales Ayuntamientos del país, desea contar también con el que, cada una en medida de sus fuerzas, puedan prestarle aún las más apartadas y reducidas Corporaciones municipales del Pueblo Vasco, a todo el cual intenta dicha Sociedad llevar su obra de cultura, para la que considera la cooperación de esas entidades, medio necesario y aliento tan vigoroso como nacido de lo más hondo de ese pueblo a quien su labor se destina.

Haciéndose cargo de tan plausibles deseos, la Comisión provincial ha acordado dirigirse a V. como Presidente de ese Ayuntamiento, recomendándole con vivo interés acoja el llamamiento, que la **Sociedad de Estudios Vascos** le dirige, inscri-

GIPUZKOA'KO  
KOMISIO PROBINTZIALA  
18'g. idazki-orokorra.

EUZKO-IKASKUNTZA

Euskaldun arduratsuen biotzetan aspaldian zegoen, bizi ta be-ro, Euskalerritarren gogoari atsegin zaizkion gai batzuek bildu ta erabilli ta edertu ta zabalduko dituan Bazkun bat irasteko asmoa. Bazkun ori jaio da: Irailla'ren lenengo astean Oñati'n egin ziran batzar oroigarri aien bidez bildu ziran guzin asmo ta iritziak emandako indarrez dator zelaira, ta batzar aietan agertutako naikunde ta erabakiak aurrera eramateko lana bere mende artu du.

**Euzko-ikaskuntza** da Bazkun ori, ta bere gogo ta asmoak aurrera eramateko guzion laguntasuna bear du. Aldundiak (Diputazioak) eskeñi diote berea, ta Erri-batzar batzuek ere bai, baña guk guzion laguntasuna nai degu, ez batzuen a baka-rik.

Ori esatera datorkizu gaur Kómisio Probintziala: Ayuntamentu orren izena batzarkidien artean pozik ikusiko lukela esatera, ta urtero-urtero ainbesteko bat emanaz **Euzko-ikas-**

biendo a dicha Corporación como Socio Protector, mediante la consignación de una cuota fija anual.

En la seguridad de que las iniciativas de la **Sociedad de Estudios Vascos** en beneficio de la vida local, las cuales tratan actualmente de concretarse mediante una Asamblea municipal que se ha de celebrar este mismo año y en la que ya a los representantes de los Municipios inscritos se concederán especiales derechos, compensarán con creces a ese Ayuntamiento del exiguo sacrificio, que en cuanto alcance su posibilidad, se requiere ahora de él para el cumplimiento de fines tan elevados.

Dios guarde a V. muchos años.

San Sebastián, 3 de Abril de  
1919.

El Vicepresidente, Vicente  
Laffitte

El Secretario, Ramón de  
Zubeldia

**kuntza**'n Ayuntamiento ori sartu dedilla ta iraun dezala eskatzera.

Ala eginda, Ayuntamentuak asko irabaziko dute. Oei dagozkioten lan ugari aurrera eramango ditu **Euzko-ikaskuntza**'k: aurtan bertan, batzaldi bat egingo du lan oiek aritzeko, ta Ayuntamentuen izaera ta errien bearrak argitu ta goratuko ditu, guziontzat ondorengo ederrak erakarriaz.

Egiteko au guziok indartu bear degu, ta lan ontan, Gipuzkoa'ko Ayuntamentuak joan bear dute bestien aurretik.

Urte askotan Jaungoikoak bere esku zaitzala.

Donosti, 1919'g. urteko  
Jorrailla'ren 3'an.

Bizente Laffitte  
Lendakari-ordezkoa  
Ramon Zubeldia  
Goarpelaria

*Cesar Gallastegi, Gotzon Lobera eta Andres Urrutia.*